

'Sagardoak elkartzen gaitu' ekimenean parte hartu dute 40 ostalarik irailean

GURE GASTRONOMIAREN EZAUGARRIETAKO BAT DA AUTENTIKOTASUNA, eta horretarako ezinbestekoa da bertako produktuen eta lehengaien erabilera. Horregatik, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak urteak daramatza ostalarien artean lurraldeko produktuen erabilera sustatzen.

Lan horretan, gastronomia eta bere benetakosuna ezaugarri dituen eskualdeko ostalaritzak ezin zuen bazter utzi sagardoa: bertako edari nagusietako bat. Hori dela eta, Gipuzkoako Sagardogileekin batera urteak daramatzagu elkarlanean gure ostalarien artean Sagardoa eta, zehazki, Euskal Sagardoaren kontsumoa sustatzeko. Aurtengo, pandemiak bertan behera utzi dizkigu ekintza eta festa



asko, baita hainbat herritako Sagardo Egunak ere. Hortaz, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak Sagardoak Elkartzen Gaitu ekimena jarri dute abian aurtengo, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Kanpaina irailearen 8 eta 26 artean egin zen, euskal sagardoa Gipuzkoako 40 taberna eta jatetxetan dasta-

tzeko. Horren truke, zozketetan parte hartzeko aukera ere izan dute bezeroek.

Sagardoaren Eguna ezin izan denez ospatu, Donostiako Trinitate plazan egin zen kanpainaren aurkezpen ekitaldian sagardotegien lana eszenaratu nahi izan zen: sagarra bildu, txikitu eta prentsatu, baita 2020ko uztako lehen muztioa egin ere.

Kanpainen parte-hartu duten establezimenduak: **Asteasu:** (Iturriondo). **Astigarraga:** Zipotza, Ekaitz, Ibai lur. **Azpeitia:** Lagun Onak, Korrale, Orkatz. **Donostia:** Antigua Jatetxea, Aratz, The New Sansse, Bar Antonio Café Bar San Martín, Ricky Pollo, Garaitza, Bar Agustín, Herria, Belfast, Kofradia, Pandora Taberna, Gasteiz Jatetxea. **Hernani:** Errioguardaenea, Aieko. **Irun:** Kortxo, Fano, Cantina San Marcial, Felix Manso Jatetxea. **Itziar:** Bururgorri. **Lezo:** Asador Patxiku-Enea Erretegia. **Loiola:** Elizalde. **Oretea:** Etxe ondo, Donosti Sagardotegia. **Pasai Antxo:** Bar Nimos. **Usurbil:** Patri Jatetxea, Txiriboga Taberna. **Zarautz:** Berazadi berri, Jai Txiki. **Zestoa:** Pollería Iraeta. **Zumaia:** Flysch, Itzurun.